



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

Batzar Nagusiek Urduñako Ama Birjinaren monumentua zaharbarriztetea eta Bizkaiko “begiraleku” bilakatzeari proposatu dabe

Bilbon, 2015eko martiaren 5ean .

Gaur bildutako Bizkaiko Batzar Nagusietako Kultura eta Euskerako Batzordeak, Bizkaiko Talde Popularraren (PP) arauz besteko proposamen bat onartu dau, Urduñako Ama Birjinaren monumentua eta bere ingurunea Bizkaiko “begiraleku” bilakatzeko, “bere funtsari eutsiz eta turismoaren ikuspegitik daukazan aukerak indartuz”.

Ekimena Arturo Aldecoa PP-ko bozeroaleak defendidu dau, eta Urduñako Ama Birjinaren monumentua, “Bizkaiko leku ederrenetakoa eta berezietakoa”, “egoera txarrean” dagoala esan dau.

PP, Socialistas Vascos (PSE-EE) eta EH Bildu taldeen aldeko botoagaz eta Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldearen abstentzinoagaz onartu dan proposamenak eskaerea egiten deutso Foru Aldundiari, Txarlazo mendiko arkitektura moltsoa aldatzeko” dagozan aukerak, kostuak eta lege jardunbideak” aztertu daizan.

Jon Sánchez EAJ-PNV-ko ordezkariak monumentuaren “balio sentimentala” onartu dau, baina “haren jaubea Urduñako Udala dala” gogoratu dau. Holan, esan dau Udala “ez dala Aldundira zuzendu eta ez deusala Aldundiari bertan jarduteko asmorik bideratu”. Sánchezek esan dau, baita be, Urduñako Ama Birjinaren monumentua Gaztela eta Leongo Erkidegoan dagoala, geografiari jagokonez, Villalba de Losa udalerrian, hain zuzen be.

Irene Soto EH Bilduko bozeroaleak, Urduñako udalerriak monumentua eta bere ingurunea berreskuratzeko daukan interesa azpimarratu dau, eta EAJ-PNV-ri “udalerriak izan dituan gaiztasun ekonomikoak” gogoratu deusaz, eta Udalaren esfortzu guztiak horretan zentratu dirala esan dau. Udala Aldundiagaz ibili da beharrean, arazo horiek konpontzeko”.

KOBENKOBA

Kultura eta Euskerako Batzordean bertan, batzarretako talde popularraren beste lau proposamen aurkeztu dira. Guztiak onartu dira.

Holan, PP-k aurkeztutako beste proposamen bat onartu da, Foru Aldundiak Lanestosako eta Karrantzako Udalen aurrean Kobenkobaren kudeaketea hobetzeko eta bultzatzeko egin beharrekoak egin daizan. Kobenkoba, Lanestosan dagoan Garai Paleolitikoaren interpretazio



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

gunea da, eta egin beharrekoak Enkartur soziedadearen bitartez egin beharko litzatekez. Horrez gain, atea zabaltzen da “inguruko lurraldeetako administrazioak azpimarratuak lortzeko, Enkarterritik eta Bizkaitik kanpo, Kantabrian, Burgosen eta Araban dagozan aztarnategi paleolitikoek, grabauak eta hormatan margoak daukiezan haitzuloek, eta interes naturaleko kobazuloek osatutako kultur ibilpideen barruan Kobenkoba bultzatzeko”.

Kobenkobaren aldeko ekimena PP, PSE-EE eta EH Bildu taldeen aldeko 7 botoakaz eta EAJ-PNV-ko kontrako 6akaz onartu da. Maria Presa talde jeltzalearen bozeroaleak, Foru Aldundiak 2009an sortutako Kobenkoba zentroari emon eutsan laguntzea azpimarratu dau, eta esan dau “zentroak ez dituala aurreikusitako helburuak bete, bisitari kopuruarena, beste batzuen artean, krisialdiaren ondorioz, beharbada”.

Irene Soto EH Bilduko bozeroaleak, Kobenkoba “goi mailako azpiegitura” dala esan dau, eta, horren ostean, “diru gitxigaz aurrera ataratea posible dala” adierazo dau, “proiektua sobre-dimensionau ostean”. Santimamiñeko kobazuloak egin dauen konparazioa Maria Presak eztabaidatu deutso. “Arkeologiaren arloan daukadan ezagutza maile handia ez dan arren, uste dot ez dirala konparetako modukoak”, esan dau Presak.

INDUSTRIA ONDAREA

Kultura eta Euskerako Batzordean gaur onartu dan Arauz Besteko hirugarren Proposamenaren hartzailea Eusko Jaurlaritzea da. Batzar Nagusiek eskaerea egin deustie, Bizkaiko industria ondarearen osagaiak Kultur Ondasun izendatu daitezkan Bizkaiko Batzarrek, Industria Ondarearen Euskal Alkarteak eta beste erakunde publiko eta pribadu batzuek egindako eskariak dirala eta, espedienteak abiarazo eta azkar eta modu egokian ebatzi daizan.

Ekimen hori defendiduteko orduan, “Bizkaiko industria ondarearen parte diran pabilioiak, lantegiak eta bestelako elementuak jasaten ari diran narriadura” dala eta erne egon behar garala esan dau Arturo Aldecoa. “Denpora errealean jardun behar dogu” adierazo dau.

Proposamenak PP, PSE-EE eta EH Bildu taldeen aldeko botoa lortu dau, eta EAJ-PNV abstenidu egin da. Mirene Bidaguren bozeroaleak esan dauenez “arlo horretan eskumenak dituan Eusko Jaurlaritzaren lana fiskalizatea ez da Batzar Nagusi honeen eginbeharra”.

OSASUN IKASGELAK ETA ARTE JARDUERAK

Gaurko saioan PP-ren Arauz Besteko beste Proposamen bi be onartu dira. Horreetan, eskaerea egiten jako Aldundiari, alde batetik “osasun ikasgelak” sustau daizan, umeei aholku osasungarriak eskintzeko eta, bestetik, dantzaren, antzerkiaren, musikaren eta arte plastikoaren arloan umeentzako eta gazteentzako jardueren estrategia bultzatu daian. Ekimen biak onartu egin dira, batzarretako talde guztien aldeko botoakaz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

HITZARMENA EUSKALTZAINDIAGAZ

Amaitzeko, Kultura eta Euskerako Batzordeak berretsi egin dau aho batez, Eusko Jaurlaritzaren, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundien eta Euskaltzaindiaren artean sinatuko dan lankidetzaz hitzarmena. Horren bitartez, Euskal Hizkuntzaren Akademiari “finantziarazina bermatu egingo jakoz, euskeraren gainean dituan arau-, kontsulta-, ikerketa- eta zabalkunde-eginkizunak bete daizan, eta, aldi berean, baliabide publikoakaz finantzautako jardura guztiak ebaluetako beharrezkoak diran mekanismoak ezarri daitezaz”.

Akordioa Josune Ariztondo Kulturako Diputatuak aurkeztu dau, eta 2013. eta 2014. urteetan erakunde eta administrazio publikoek (Nafarroako Gobernuak, Espainiako Kultura Ministerioak eta Frantziako estatuak berru) Euskaltzaindiari emondako diru-laguntzen barri emon dau talde guztien aurrean. Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, 2013. urtean kopuru hori 355.000 eurokoa izan zan, eta 2014an kopuru berbera ordaindu jakoz, kontratu-programaren barruan. Kopuru horri, kontratu-programatik kanpo egozan beste ekarpen txikiagoak gehitu behar jakoz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas proponen rehabilitar el monumento de la Virgen de Orduña y convertirlo en un "balcón-mirador" de Bizkaia

En Bilbao, a 5 de marzo de 2015.

La Comisión de Cultura y Euskera de las Juntas Generales de Bizkaia, reunida hoy, ha aprobado una proposición no de norma del grupo Popular Vizcaíno (PP) para convertir el monumento de la Virgen de Orduña y su entorno en un “balcón-mirador” de Bizkaia, “manteniendo su esencia y mejorando su potencialidad turística”.

La iniciativa ha sido defendida por el portavoz del PP Arturo Aldecoa, que ha alertado del “mal estado” del monumento de la Virgen de Orduña en el monte Txarlazo, “uno de los entornos más bellos y singulares de Bizkaia”.

La propuesta, - que ha sido aprobada con los votos a favor de PP, Socialistas Vascos (PSE-EE) y EH Bildu y la abstención del grupo Nacionalistas Vascos (PNV), - incluye solicitar a la Diputación Foral que “estudie las posibilidades, costos y formas legales de actuación precisas” para modificar el conjunto arquitectónico del monte Txarlazo.

El representante de PNV Jon Sánchez ha reconocido el “valor sentimental” del monumento pero ha recordado que “el titular del mismo es el ayuntamiento de Orduña”. En este sentido, ha subrayado que dicho consistorio “no se ha dirigido a la Diputación ni trasladado a la institución foral su interés por actuar en el mismo”. Sánchez también ha recordado que el monumento de la Virgen de Orduña se encuentra ubicado geográficamente en territorio de la Comunidad de Castilla y León, concretamente en el término municipal de Villalba de Losa.

La portavoz de EH Bildu Irune Soto ha destacado el interés del municipio de Orduña por recuperar el monumento y su entorno y ha recordado al PNV “las dificultades económicas por las que ha atravesado el municipio, que han centrado todos los esfuerzos del consistorio, y en cuya resolución ha estado trabajando con la Diputación”.

KOBENKOBA

En la misma Comisión de Cultura y Euskera se han sustanciado otras cuatro proposiciones no de norma del grupo juntero popular. Todas ellas han sido aprobadas.

Así, ha salido adelante otra iniciativa para solicitar a la Diputación Foral que realice las gestiones oportunas ante los Ayuntamientos de Lanestosa y Karrantza para mejorar la gestión y potenciar Kobenkoba, centro de interpretación de la Era Paleolítica ubicado en el primer municipio citado, a través de la sociedad Enkartur. También abre la puerta a “alcanzar acuerdos con administraciones de territorios vecinos para impulsar Kobenkoba dentro de las



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

rutas culturales de yacimientos paleolíticos, cuevas con grabados y pinturas rupestres y grutas de interés natural de su entorno geográfico en Cantabria, Burgos y Álava, además de Enkarterri y Bizkaia”.

La iniciativa a favor de Kobenkoba ha sido aprobada con los 7 votos a favor de PP, PSE-EE y EH Bildu, y el voto en contra de los 6 representantes de PNV. La portavoz del grupo nacionalista María Presa ha destacado el apoyo prestado por la Diputación foral a Kobenkoba, centro creado en 2009, y que el mismo “no ha cumplido con sus objetivos previstos, incluido el número de visitantes, quizás debido a la crisis”.

La apoderada de EH Bildu Irune Soto ha calificado Kobenkoba de “infraestructura de alto nivel” y ha afirmado que “con poco dinero podría salir adelante, una vez sobredimensionado el proyecto”. Su comparación con las cuevas de Santimamiñe ha sido rebatido por María Presa. “Desde mi escaso conocimiento sobre arqueología, creo que no son comparables”, ha asegurado Presa.

PATRIMONIO INDUSTRIAL

La tercera Proposición No de Norma aprobada hoy en la Comisión de Cultura y Euskera tiene como destinatario al Gobierno Vasco al que las Juntas Generales reclaman “agilizar” la tramitación de las solicitudes de incoación de expedientes de declaración como Bienes Culturales de elementos del patrimonio industrial de Bizkaia realizadas por el parlamento foral, por la Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y por otras entidades privadas y públicas.

En su defensa de esta iniciativa, Arturo Aldecoa ha alertado sobre “el acelerado deterioro de pabellones, fábricas y otros elementos del patrimonio industrial de Bizkaia”. “Hay que actuar en tiempo real” ha subrayado.

La propuesta ha contado con los votos a favor de PP, PSE-EE y EH Bildu, mientras que el PNV se ha abstenido. Su apoderada Mirene Bidaguren ha afirmado que “no es tarea de estas Juntas Generales fiscalizar la labor del Gobierno Vasco, que es el competente en esta materia”.

AULAS DE SALUD Y ACTIVIDADES ARTÍSTICAS

En la sesión se han aprobado también otras dos Proposiciones No de Norma del PP que emplazan a la Diputación a promover, por un lado, “aulas de salud” para ofrecer consejos saludables a la población infantil, y, por otro, una estrategia de actividades infantiles y juveniles en el ámbito de la danza, el teatro la música y las artes plásticas. Ambas iniciativas han sido apoyadas por todos los grupos junteros.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

CONVENIO CON EUSKALTZAINDIA

Finalmente, la Comisión de Cultura y Euskera ha ratificado por unanimidad de todos los grupos un contrato programa entre el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y Euskaltzaindia, de tal manera que la Real Academia de la Lengua Vasca “tenga garantizada la financiación para realizar sus funciones normativas, consultivas, de investigación y difusión social del euskera, a la vez que se establecen los mecanismos de evaluación que toda actividad financiada con recursos públicos requiere”.

El acuerdo ha sido presentado por la Diputada Foral de Cultura Josune Ariztondo, que ha informado a los grupos de las cantidades económicas aportadas a Euskaltzaindia por las diferentes instituciones y administraciones públicas (incluidos Gobierno de Navarra, Ministerio de Cultura español y Estado francés) en los años 2013 y 2014. En el caso de la Diputación Foral de Bizkaia, este desembolso ascendió a 355.000 euros en 2013 y la misma cantidad en 2014, dentro del contrato programa, a las que se sumarían otras aportaciones menores fuera del mismo.